

Artezkaritza-kontseiluaren bilera-data

Datorren **abenduaren 10ean** izango da Artezkaritza-Kontseiluaren hurrengo bilera. Bertan aipatzeko gairen bat izanez gero, artezkaritza@udarregi.eus helbidera bidaliz jakinaraz dezakezue.



Jangela abenduaren 19an

Abenduaren 19ko eguerdian DBH, LH eta HH 3-6 urtekoen eskolak 12:30ean amaitzen direnez, jangelako bazkaldarrak **etxera bakarrik** joatea nahi izanez gero, **baimena** usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz eman beharko da. Guztiek 1. txandan bazkalduko dute egun horretan, alegia, 12:30ean.



Bestalde, eguneroko bazkaldarrei gogorarazi nahi diegu, abenduaren 19an **jangelako zerbitzua erabili behar ez badute**, ahalik eta azkarren usurbil@ikastola.eus helbidera idatziz **jakinarazi** behar dutela.

Neguko katalogoa

Urtero bezala, Ikastolen Elkartetik helarazten duten [NEGUKO katalogoa](#) ikusi dezakezue.

Iparraldeko ikastolen egutegiak salgai

Iparraldeko ikastolek urtero egin ohi duten bezala, 2025eko egutegia (**Seaska**) salgai jarri dute. Erosi nahi izanez gero, **Ikastolako idazkaritzan** egongo dira **salgai**. Bakoitzaren salneurria, **4 €**.



Ikastolako familietako hizkuntzak ezagutuz

Gaur zuen seme-alaba gazteenaren tutoreak erantzuteak 5 minutu baino gutxiago hartuko dizun galdetegi bat bidaliko dizue. Galdetegi honen helburua, gurasoek dituzten beharrak eta gaitasunak ezagutuz, familiekin elkarlana ahalik eta modu egokienean egiteko datuak biltzea da. Familien hizkuntz egoerak ezagutzeak, ikastola eta familien arteko elkarlana hobetzen lagunduko du; beraz, ikasleei euskararen eta hizkuntzen ezagutza eta erabileran eragiten ere lagunduko die.



Familiako galdetegi BAKARRA erantzun behar duzue **abenduaren 12a**, ostirala, baino lehen. Galdeketa GURASOOK bete dezazuen eskertuko dugu. Mila esker aldezturik!
Udarregi Ikastolako Hizkuntz Proiektua taldea.

HAUR HEZKUNTZA

Abenduak 19ko txistorra jana

Abenduaren 19an HH (3-6 urte) ikasleek txistorraren ogitartekoa jango dute. Lau aukera egongo dira beharrak asetzeko:

- Txistorra glutendun ogiarekin
- Txistorra gluten gabeko ogiarekin.
- Txistorra beganoa glutendun ogiarekin
- Txistorra beganoa gluten gabeko ogiarekin.



HH-koen ogitarteko bakoitzaren prezioa **1,5 €** izango da eta ikasle bakoitzak bere tutoreari abenduaren 13a baino lehen ekarri beharko dio eskudirutan. Mila esker. Antolatzaileak: DBH4ko ikasleak

LEHEN HEZKUNTZA

Hatz 10 kobrantza

Hilabete honetako erreziboarekin batera, Hatz 10 mekanografia ikastaroaren zenbatekoa kobratuko zaie LH 5. eta 6. mailako ikasleei. Kostua **5 €** izango da.



LH4 Irteera kobrantza

Dakizuen bezala, **ekainak 16-17** Piraten Etxera egingo dugu kurtso amaierako irteera.

Ikasleko **90,45 euroko** kostua izango da; estantzia +autobusa.

Diru hori **3 zatitan** kobratuko da. **Lehenengo zatia, 30,15 €**, hurrengo astean, abenduak 10, kobratuko da.


Norbaitek arazoren bat izango balu, jarri dadila gurekin harremanetan.



LH1 mailako familientzat oharra

Teresa Olabarria optometrista LH1ko ikasleekin egon da frogak pasatzen. **Abenduaren 9an, asteartea**, arratsaldeko 17:00etan, bilera egingo da. Bertan, ikasleei egin zaizkien frogen berri emango da txostena hobeto ulertu ahal izateko. Horrez gain, ikusmen-prebentzioko aholkuak eta kaltetuak ikusi diren ikusmen-trebetasunak hobetzeko zenbait ariketa emango dira.

Bilera Agerialdeko 3. Solairuan izango da.



Abenduak 19ko txistorra jana

Abenduaren 19an HH (3-6 urte) ikasleek txistorraren ogitartekoa jango dute. Lau aukera egongo dira beharrak asetzeko:

- Txistorra glutendun ogiarekin
- Txistorra gluten gabeko ogiarekin.
- Txistorra beganoa glutendun ogiarekin
- Txistorra beganoa gluten gabeko ogiarekin.



LH-koen ogitarteko bakoitzaren prezioa **2 €** izango da eta ikasle bakoitzak bere tutoreari abenduaren 13a baino lehen ekarri beharko dio eskudirutan. Mila esker. Antolatzaileak: DBH4ko ikasleak.

Hezkidetza, sexuen hezkuntza eta tratu onak eskolan

Zuen seme-alabek, Harremanak taldearen eskutik, datozen bi astetan hainbat saio jasoko dituzte eta ondoren gurasoentzako saioa egongo da. Bertan landuko diren gaiak hauek izango dira:

- Seme alabekin izan dituzten saioetan zer landu duten azaldu, baita gela zein begiradatik behatu duten ere.
- Haurrak nola ikusi dituzten Hezkidetza, Sexuen Hezkuntza eta Tratu Onei dagokienez: berdinen arteko harremanak, autoestimua, gorputza, emozioak, tratu onak...
- Ebolutiboki zein momentutan dauden.
- Gurasoei haurrak gai hauetan laguntzeko gakoak eman.
- Zalantzak jaso eta zuen galderak erantzuteko tarteak izango duzue.



NOIZ: Abenduaren 11an, 17:00etan.

LEKUA: Agerialdeko 3. solairuan (LHko 2. zikloa)

NORENTZAT: LH5 eta LH6ko gurasoentzat.

Tailerrera etortzeko asmoa izango bazenute, mesedez bete [galdetegia](#).

BIGARREN HEZKUNTZA

Ebaluazio-txostenak

Gogorarazten da, **GAUR** igoko dira ebaluazio txostenak Alexia aplikaziora.



Material-kobrantza

Abenduaren 16an, hileko erreziboarekin batera, DBHko ikasleei 2025/26 ikasturteko eskola-materiala kobratuko zaie. Materialaren kostua, **38,50 €** izango da.



Atzerriko beka deialdia

Jakinarazten da gaurko egunez argitaratu dela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. eta 4. mailetan matrikulatutako ikasleak atzerrian ingeleseko, frantseseko eta alemaneko ikastaroak egiteko diru lagundutza [agindua](#).

